

IGELDOKO ORRI INFORMATIBOA

**Zaindu
Igeldo!**



Kaixo herrikide!!!

2021 urteko lehenengo alea duzue honakoa. Urtero bezala, Martxoak 8 Emakumearen Egunaren bueltan jasoko duzue etxean eta adi egon, hainbat ekimen egingo baitira herrian, nahiz eta afaririk ez izan. Horrez gain, azken aste-etan gertatutakoak bildu ditugu eta auzolanean egindako

zabor bilketari merezitako tartea eskaini diogu. Atzera Begira atalean, berriz, Etumeri buruzko historia jaso dugu eta erreportajea, Izarkom Kooperatibaz aritu gara. Koronabirusaz hausnartzeko aukera ere baduzue, eta horrez gain, atal berria sortu dugu: merkatu txikia.

Dagoeneko bildu dira argazki zahar guztiak

Aurreko Orri Informatiboan azaldu bezala, argazki zaharren bilduma egiteko asmoa dago. Jabier Iraolak abiatutako ekimenak interesa piztu zuen Herri Kontseiluaren eta beste herritar batzuen artean eta burubelarri dabilta proiektuarekin.

Jakinarazi dutenez, aurreneko fasea bukatzeaz da, hau da, argazki guztiak edo ia guztiak bildu dituzte dagoeneko. Orain, argazki guztiak txukuntzen ari dira

eta argazki horien inguruko informazioa biltzen: azaltzen diren pertsonak identifikatu, datak zehaztu, argazkiaren kontestua... Behin lan hori bukatuta, argazkien aukeraketa egingo dute eta hortik zehaztuko dute liburuaren formatua.

Proiektuko kideak pozik daude izandako harrerarekin: «Jendeak oso ondo hartu gaitu eta argazki pila eman dizkigute». 150 etxe baino gehiagotara joan dira argazkiak jasotzera.

Kultur mahaia sortuko da

Lehenengo bilera martxoaren 18an izango da.

Kultur eskaintza zabala duen herria da Igeldo, dena dela eskaintza hori ordenatu eta biderkatzeko beharra dagoela iritzita kultur mahaia sortzeko apustua egin du Herri Kontseiluak. Urtean zehar ekintza zehatzak antolatzen diren arren (udazken-udaberri jaia, herriko festak...) iraunkorki ekintzak antolatzeko beharra eta premia dagoela ikusi dute. Izan ere, egoera berezi honetan herria antolatu eta osatzen dugun komunitatea lantzen jarraitzea inoiz baino beharrezkoagoa dela iruditzen zaie. Honekin lotuta, jendeak kultur ekimenak antolatu eta horietan parte-hartzeko gogoia ere badagoela ikusten

dute. Horren lekuko azken hila-beteetan antolatu diren kultur ekimenetan parte hartu duen jende mordoia; Euskaraldiko egitaraua, olentzeroren etorrera...

Esan bezala, kultur mahaiak maiztasun jakin batekin ekintzak antolatuko ditu eta kultur ekimenak antolatzen dituen herriko talde zehatzekin (jaiak, udazken-udaberri jaia...) lotura izango du. Beti ere, egoerak eskatzen dituen osasun neurriak kontuan hartuko dira antolatzen diren ekimenetan. Lehen bilera martxoak 18 osteguna 19:00etan jarri dute. Taldean parte-hartzeko interesa edota ideien bat izanez gero idatzi helbide honetara: herrikontseilua@igeldo.eus.



Ordu-tegi berria

iko
ostalaritza kooperatiboa

Eguerditan Zabalik!
Abierto al mediodía

Astelehena Lunes 9:30-20:00
Asteartea Martes 9:30-20:00
Asteazkena Miérc. 9:30-13:30 / 16:30-20:00
Osteguna Jueves 9:30-20:00
Ostirala Viernes 9:30-20:00
Larunbata Sabado 9:30-14:00

Ordutegia zabaldu du IKO dendak

Otsailaren 1etik aurrera eguerditan ere kooperatibako denda irekita izaten da, asteazkenetan ezik. Ordutegia zabaltzea erabaki dute herritarrei zerbitzu hobetua eskaintzeko. Oraingoz izandako harrerarekin gustura daudela adierazi dute dendako langileek eta printzipioz horrela jarraitzeko asmoa dutela. Zenbait produktu berri ere salgai dituztela eta, herritarrak animatu nahi dituzte dendara gerturatu daitezen.

Bestalde, kooperatibako juntako kideek bazkideen arteko batzarra pixka bat atzeratzea erabaki dutela adierazi dute eta osasun egoerak hobera egiten duenean zabalduko dutela deialdia.

Zuhaitzak erori ziren Etumen

Ez daramate oso bolada ona Etumen. Abenduan lur-jausia izan zuten eta ondorioz bidea kolokan geratu zen. Otsailaren 20an, berriz, haizeteak eraginda, zuhaitzak erori ziren bidera. Pare bat egunetan, kotxe guztiak kanpora atera behar izan zituzten, badaezpada. Ondorioz, Gudamendi bidean zehar aparkatuta egon ziren bertako bizilagunen kotxeak.

Orri Informatiboari jakinarazi diotenez, bi asteburutan atera zituzten zuhaitzak. Lehenengo txandan suhiltzaileekin aritu ziren lanean bizilagunak eta bigarren txandan, igeldotar boluntario batzuen laguntza ere izan zuten.

Jubilatuek hainbat kontu

Jubilatuek hainbat kontu dituzte bazkideei jakinarazteko eta aparteko orria banatu dute azalpenekin. Laburtuz, Kutxabaneko kontua kendu egin dute eta memoria lantzeko ikastaroa martxan jarriko dute.



Aritz Branton donostiarrak irabazi du Gabonetako saskia

Gabonetako saskiaren zozketa urtarrilaren 22an egin zen (ONCE) eta 7023a izan zen zenbaki saritua. Jabea berriz, Aritz Branton donostiarra. Brantonek Igeldoko Kooperatibako produktuez osatutako

saski ederra jaso zuen, 500 euroko baliokoa. Zorionak! Antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete Kooperatibako kideei eta herritarrei emandako laguntzagatik: «Mila esker denoi!».

Hasi da EHBilduren kongresu prozesua

Batzar telematikoa egin zen Igeldon prozesua azaltzeko. Aukera gehiago ere izango dira parte hartzeko.

Urtarrilak 16an hasi zen ekainera arte luzatuko den EHBilduren kongresu prozesua. Bildu sortu zela 10 urte betetzen diren honetan, ezkerreko subiranisten erreferentzia politikoa indartzea dela kongresuaren helburu nagusia adierazi dute: «Kongresu prozesuan zehar eta aurrera begira EHBildu indartu nahi da bai barrura begira zein kanpora begira. Barrura begira, herri guztietan EHBilduko taldeak sortuz eta alderdi politikoaren antolakuntza indartuz. Kanpora begira, eragiteko

gaitasuna eta erreferentzia irabaziz. Kongresuan parte-hartzeko bilkidetzea edo afiliatzea beharrezkoa izango da. Bilkidetze kanpainak aukera emango du jendeak EHBildurekin duen atxikimendua eta konpromisoa areagotzeko. Egoera ziur gabea bizi dugula jakitun, bilkidetzeko dirua ez da arazo izango, bakoitzaren egoeraren arabera kuota ezberdinak planteatzen baitira». Bilkide egiteko helbidea ere jakinarazi dute: bilkide.ehbildu.eus.

Kongresu prozesuaren nondik-

norakoak azaltzeko batzar telematikoa egin zen Igeldon otsailaren 3an. 9 pertsonak hartu zutela parte azaldu dute eta bereziki EHBildu herrian sortzeko egon daitezkeen aukerez aritu zirela: «Aurrera begira ere eskainiko dira aukerak kongresu prozesuan parte-hartzeko eta baita herri mailan EHBilduk jokatu beharko lukeen papera edo bete beharreko funtzioen inguruan hitz egiteko. Beraz, prozesuan parte-hartu eta bilkidetzeko deia luzatzen dugu!».



Puntu ezberdinetan bildutako zabor guztia plazan pilatu zuten eta bakoitza zegokion tokian bota ostean, amaitutzat eman zuten ekimena.

«Errespetatu eta zaindu Igeldo!»

80 herritar inguruk zabor bilketa egin zuten otsailaren 21ean Igeldon. 45 bat zabor poltsa handi jaso zituzten. Donostiako Udalari ere eskaera luzatu zaio, egoera honen aurrean zerbitzua indartzeko.

Herri Kontseiluaren ekimenez, zabor bilketa egin zen otsailaren 21ean Igeldon. Denera, 80 bat lagunek egin zuten bat ekimenarekin eta herritarren erantzuna sekulakoa izan zela adierazi du Herri Kontseiluak, denei eskerrak eman ez. Ekimenaren inguruan, berriz, honakoa adierazi du: «Azken aldian, konfinamendu perimetralak eta segurtasun neurriak tarteko, jende asko etortzen da Igeldora. Arazoa da horietako batzuk zaborra edonon botatzen dutela eta ingurua penagarri uzten dutela. Herritarrak oso kezkatuta gaude eta horren aurrean, zabor bilketa egitea pentsatu genuen. Ekimenarekin agerian utzi nahi izan dugu Igeldon gertatzen ari dena, hau da, zabor ugari pilatzen ari dela bide baztarretan, zelaietan, arroka inguruetan, kaxkoan...».

Eta egoera horren aurrean, bi eskaera dituztela gaineratu dute:

«Alde batetik, hona etortzen direnei eskatu nahi diegu Igeldorekin errespetuz jokatzeko eta zaborra behar den lekuan botatzeko. Eta bestetik, Donostiako Udalari eskatzen diogu zabor bilketako zerbitzua indartzeko. Guk egin duguna Udalak bermatu beharreko zerbitzua da».

Igande goizeko ekimena

Ekimenaren kronika txiki bat ere egin du Herri Kontseiluak:

«Goizeko 10:00etan egin dugu hitzordua plazan eta gehienak hantxe elkartu bagara ere, batzuk abisua pasa dute zuzenean zaborra pilatzen den punturen batera joango direla esanaz, eta beste batzuk berriz, beranduxeago elkartu dira. Denera 80 bat lagunek egin dugu bat ekimenarekin.

Plazan elkartutakoak talde txikitik banatu gara (segurtasun neurriak kontuan hartuz) eta

puntu ezberdinetara joan gara. Zaborra gehien pilatzen ari den puntuak identifikatuta, hara abiatu gara: Amezi-Tximistarriko itsasertza eta miradorea, Lasarmendi bidea, Mendizorrotzeko antenen ingurua eta Bentarako bidea, kaxkoa eta Agitiko arroka... jende asko elkartu garenez, beste txoko batzuk garbitzera ere joan dira batzuk ondoren.

Denetarik jaso dugu, baina batez ere, edari eta janari arrastokak: zerbeza latak, freskagarriak, likore botilak, jakien plastikoak... Denera 45 bat zabor poltsa haundi bildu ditugu. Bakoitza dagokion lekuan bota ostean, amaitutzat eman dugu ekimena 13:00ak aldera.

Lan ona eginaren sentsazioarekin bukatu dugu denok, pozik, baina gehiagotan halakorik egin behar ez izateko nahiarekin. Errespetatu eta zaindu Igeldo!».



Tokiko Entitate Txikiaren prozesua martxa onean doa eta udaberrirako txostena prest egotea espero da

Herri Kontseiluak eta Udal ordezkariak osatzen duten lantaldea ari da pausoak ematen eta bi bilera geratzen zaizkie Batzorde Sustatzailea definituko duen txostena zehazteko.

Herri Kontseiluak jakinarazi duenez, Igeldoko Tokiko Entitate Txikiaren prozesua martxa onean doa. Udal ordezkariekin batera (EAJ-PNV, PSE-EE, EH Bildu, Elkarrekin Donostia, PP), lantaldea osatu zuten azaroan eta ordutik hiru bilerara egin dituzte. Udal teknikariak eta Siadeco elkarteko teknikariak ere partaide dira. Negoziakeztas arduratuko den Batzorde Sustatzailea definitzen ari dira lantaldeko kideak eta beste bi bilera geratzen zaizkie (martxo eta apirila). Beraz, udaberrirako txostena prest izatea espero dute. Ondoren, Donostiako Udal Plenoan aurkeztuko da txostena onespena jasotzeko. Txosten horretan zehaztuta geratuko dira Batzorde Sustatzailearen partaideak zeintzuk diren, ze eduki landuko dituzten, erabakiak nola hartuko dituzten... Izan ere, Batzorde sustatzaile

horrek negoziatuko du Igeldoko Tokiko Entitate Txikia nolakoa izango den. Dena dela, erabakiak aurrez herritarrekin eztabaidatu eta kontrastatuko dira. Negoziakesta eta prozesu guztia herritarrekin batera egingo dela azpimarratu dute Herri Kontseiluko kideek.

Adostasunez

Momentuz, lantaldeko bilera guztiak giro onean doazela adierazi du Herri Kontseiluak eta erabakiak adostasunez hartzen ari direla.

Bilera informatiboak

Lehenengo fase hau bukatu eta txostena prestatzean, hainbat bilera egiteko asmoa du Herri Kontseiluak herritarrekin eta eragileekin.

Herri Kontseiluak abenduan Herri Batzarra eskaini zuen eta bertara herritar ugari gerturatu zen.

Gai honetaz lasai hitz egiteko eta zalantzak argitzeko aukera izan zen eta modu positiboan baloratzen du Herri Kontseiluak. Prozesuaren inguruan herritarrek etengabe informatzeko beharra ikusten du eta horretan saiaturiko da bide desberdinak erabiliz.

Zalantzak argitzeko eta iritzia emateko aukera

Udalarekin hartu-emanetan Herri Kontseiluko kideak baldin badabilta ere, gai hau lantzeko batzorde bat dago Igeldon: TET batzordea. Batzordea irekia da eta interesa izan dezakeen edozein herritarrek hartu dezake parte. Bestalde, zalantzak argitzeko, iritzia emateko edo ekarpenak egiteko aukera ere badago. Nahi izanez gero, jarri harremanetan: herrikontseilua@igeldo.eus edo 606311734.

Herri Kontseiluan, kide aldaketa

Herri Kontseiluak azaldu du kide batek ezin duela Herri Kontseiluko jardunarekin jarraitu eta uztea erabaki duela. Hori horrela, kide berri baten beharrean dira taldearen lana ahalik eta eraginkorrena izateko. Norbaitek Herri Kontseiluan sartzeko gogoia eta interesa balu, jarri dadila harremanetan: herrikontseilua@igeldo.eus edo 606311734.

Etxebizitza beharra duten pertsonen zerrenda egingo da

Herri Kontseilua kontziente da etxebizitzaren inguruan arazo larria dugula. Azken urteetan, herritar asko joan dira Igeldotik kanpo bizitzera. Egoeraren larritasuna ikusirik, etxebizitzaren gaia lantzen hasi nahi da. Beti ere kontziente izanik gaia konplexua dela eta ertz asko dituela. Lehen urrats gisa, beharra duten eta Igeldon bizi nahiko lukeen pertsonen zerrenda egin nahi da. Une honetan herrian bizi nahi duten edota hemendik urte batzuetara bizitzeko asmoa edukiko lukeen pertsonen zerrenda. Horrela, hurrengo urteetan egongo den etxebizitza premia identifikatuko da. Bestetik, gaia modu orokorragoan lantzeko asmoa ere badago. Zerrendan sartzeko, jarri harremanetan: herrikontseilua@igeldo.eus edo 606311734.

Informazioa eskatu da Txalingo obraren eta adikzioak tratatzeko zentruaren inguruan

Azken aldian herritarren artean kezka sortu dute bi gaik: Txalin mendiaren magalean egiten ari diren obrek eta Gudamendi bidean martxan jartzera doazen adikzioak tratatzeko zentruak. Bi gai horien inguruko informazioa eskatu du Herri Kontseiluak udaletxean eta informazio hori eskuratzeko zain dago.

Irregularitasun zantzuak Txalinen

Aspalditik dabilta lur mugimenduetan Txalin magalean (depositoaren atzean). Herri Kontseiluak jakin duenez, etxebizitza bat eraikitzen ari dira. Herri Kontseilua kezkatu egin zen hori jakin zuenean, berez, eraiki ezinako lurra baitira horkoak eta informazioa eskatu zuen udaletxean. Momentuz jakin duenez, AHTaren obren ondorioz baserri bat bota zuten Martutenen eta haren ordezkoa eraikitzeko lurra eman zitzaizkion jabeari Igeldon (Txalingo magalean). Jabe horrek lur horietan Goiatz Berri etxea eraikitzeko

proiektua aurkeztu zuen hasiera batean. Bitarte honetan, jabe aldaketa egon da eta oraingo proiektu berri honetan beste etxebizitza bat eraikitzea aurreikusten da. Bi kasuetan ere, nekazal ustiapenik gabeko etxebizitzak lirateke eta irregularitasun zantzu argiak daude Herri Kontseiluarentzat.

Espedientearen inguruko dokumentazio guztia jaso zain daude orain (datozen asteetan eskuratuko du) eta ondoren ondo aztertze-ko asmoa dute egoera zein den eta zer egin daitekeen.

Adikzioak tratatzeko zentruaz galdezka

Gudamendi auzunean adikzioak tratatzeko zentrua jarriko dute martxan (Virtuss elkarteak). Herri Kontseiluak abenduan izan zuen honen berri, bere kabuz, eta urtarri-lean gai honen inguruko albistea argitaratu zen prentsan. Herri Kontseiluak keja adierazi zuen udaletxean, beste behin ere Igeldo aintzat hartu gabe eta informaziorik eman gabe erabakiak hartzeagatik.

Horrez gain, proiektuaren inguruko informazio guztia eskatu zuen. Auzoetako zinegotziak momentuz, honakoa jakinarazi du: «gaur egun Virtuss elkarteak Ramon Maria Lili kaleko pisu batean du egoitza eta ez dira kabitzen. Jende lasaia da eta arazorik sortzen ez duena. Pribatuen arteko kontu bat da, baina Udalak egin duena da eraikinararen izaera aldaketa ontzat jo jarduera horretarako erabili dadin. Diputazioari dagokio orain erabakia hartzea eta interes publikokoa dela izendatzea». Gainerako informazio guztia jasotzeko zain dago oraindik Herri Kontseilua (laister eskuratzeko espero du).

Herri Kontseiluak badaki bertako bizilagun batzuk kezkatuta daudela eta behin eta berriz adierazi dio zinegotziari herritarrak informatzeko beharraz. Zentzu horretan, Herri Kontseilua saiaturiko da informazioa lortu ahala herritarrak eta batez ere bizilagunak informatzen. Virtuss elkarteko ardura-dunekin ere harremanetan jartzeko asmoa du.


Eskola zaharreko proiektua alderdi politiko guztiei aurkeztuko zaie

Eskola zaharreko proiektua idatzita dago eta hurrengo egunetan udalean ordezkariak duten alderdi politiko guztiei aurkeztuko zaie.

Solairu bakoitzerako ondoko proposamena egingo da: Behebeheko solairuan (arkupetakoa), lehen jangela zena, gela polibalentea sortzeko proposamena. Lehen solairuan eguneko zentroa. Bigarren eguneko zentroarentzako zatitxo txiki bat eta beste guztia jubilatuek kudeatuko lukete. Azken solairua gazteek kudeatzeko proposamena egingo da. Proposamena egin ondoren ikusiko da udaletik zer jarrera hartzen duten eta egitasmoa gauzatzeko aukerarik dagoen. Udaleko alderdi politikoei proiektua aurkeztearekin batera, Igeldoko herritarrei aurrez-aurre aurkezteko asmoa ere badago.

Zakur kaken arazoak berdin jarraitzen du

Txakur kaken arazoaren aurrean, Herri Kontseiluak hainbat ekimen egin ditu azken urtean. Hala nola: txakur kakak seinalatuz banderatxoak jarri, kontzientziazteko kartelak jarri, informazioa banatu, txakur jabeekin hitz egin... Eta hala ere egoerak berdin jarraitzen duela salatu du. Horren aurrean, txakur jabeek berriz egiten die eskaera beraien txakurren kakak jasotzeko.



Don Juan Olasagasti ageri da argazkian (eskuinetik hasita bigarrena; X daukana).

ETUMEKO HISTORIA

Gaur Etumeri begira jarrita zaila da pentsatzea garai batean nekazaritzari loturiko gunea izan zela. Hasiera batean, 1890 urtean, Don Juan Olasagasti Irigoyen izeneko jauntxo batek 32 hektarea erosi zituen inguru horretan. Juan Olasagasti Irigoyen 1848 urteko maiatzaren 6an jaio zen Donostian eta familia garrantzitsuko semea izan zen. Bere aita Tomas, Donostiako Udaleko zinegotzia izan omen zen hainbat aldiz eta nekazaritza munduan ere ezaguna izan omen zen egindako aurrerapen eta erreformengatik. Juanek nekazaritzaren inguruan zuen jakin-mina aitagandik jasoko zuela ondoriozta daiteke eta Igeldon erositako lurretan bere jakintzak eta esperimenduak gauzatu ahal izateko aukera izan zuela.

Topografia nahiz geologia aldetik erositako lur eremu horren ezaugarriak oso egokiak ez izan arren, nekazaritzarako lur bilakatu zituen lanketa handi baten ostean eta nekazal lur eredugarri bilakatu. Bertan, nekazaritzaren garapen eta aurrerapausoak emateko asmoz, zenbait azterketa eta lanketa egiten zituen, "Etume Baserri-Eredua" sortuz. Gizon garrantzitsua izan zela ezin ukatu, hala ageri da idatzi zaharretan eta gorapamen ugari adierazten dira berak sortutako baserri eredugarri horren inguruan. Gipuzkoa zein Espainia mailan aitortua izan zen bere lana eta bertako nekazariarentzat ere oso baliagarriak izan omen ziren bere lanketak eta

aurrerapausoak. 1907 urtean hil zen eta hileta elizkizunak Igeldoko San Pedro elizan egin ziren, jende inportante asko inguratu omen zen, hileta garrantzitsua izanik.

Ondoren, ganadu-hiltegia

Ondorenean, Etume izeneko gunea horretan ganadu-hiltegi bat egon omen zen. Ziur ez dakigu zein urtetatik hasi zen martxan, baina 1940-50 hamarkada inguruetan martxan omen zen. Aldanondo abizeneko gizon bat izan zen hiltegia kudeatu zuena, Bretxa merkatuko Aldanondo harakinen osaba. Bertan ganadu ezberdinak hiltzen zituzten (behi, txekor, zerri...) eta gero hauen haragia eta landutako produktuak (txorizoak, odolkiak...) saltzen omen zituzten Gipuzkoa osoan zehar. Iturrietako Beltxora Etxebeste txarkuteri lanetan aritu omen zen eta bere senar Benito Oiarbide banatzaile eta komertzial lanetan. Eraikinei dagokienean, alde batetik Etume etxea omen zegoen eta gero inguruan beste eraikinak: ikuilua, hiltegia, elaborazioko gunea, hotz-kamerak...

Don Jose Medikua

Hiltegia martxan egon zen bitartean, Etume etxearen ondoan ageri den dorrean, Jose Ramon Galparsoro (Don Jose Medikua bezala ezaguna



Etume etxearen argazkia. Eta ondoan ageri den dorrean Jose Manuel Galparsoro "Don Jose medikua" eta bere familia bizi ziren.

herrian) eta bere familia bizi izan omen ziren. 1942 urtean etorri ziren Goierri aldetik Igeldora eta fama handiko medikua izan omen zen. Igeldo eta Antiguatik etortzen zitzaizkion gaixoak sendatzen zituen. Medikua lan ezberdinak egiten omen zituen, baita matrona lanak ere. 3 edo 4 urte inguru bizi izan ziren Igeldon eta gero Antiguara jaitsi eta Matia kaleko etxean kontsultak pasatzen jarraitu zuen.

Geroztik Ameztin bizi diren Galparsorotarren senideak zen.

Gaurko Etume

Gaurko Etume berriz, 1970 urtean eraiki zen eta Joxe Azurmendi izan zen promotorea beste batzuen laguntzarekin. Ordura arte beste familia batzuk ere bizi izan omen ziren Etumeko etxean.

Aurreko aleko argazkietako pertsonen izenak / Gudamendiko "tiro-pitxoi"-ko langileak:

1.-Usoak jartzen aritzen zirenen taldekoak:


Ezkerretik eskuinera goian: Jose Ugarte? eta Gabriel "txarpier".

Ezkerretik eskuinera behean: Angel Zamora, Jose Antonio Martiarena, Alejandro Azurza eta Celestino Aranguren.

2.- Pistako korrikalarien taldekoak:

Ezkerretik eskuinera goian: Jose Antonio Mugica eta Martin Sorondo

Ezkerretik eskuinera behean: Jesus Etxebeste, Joanito Ugarte eta Mariano Fernandez.



GURUTZEGRAMA

- 1- Edari bat da. Gorria, txuria edo beltza.
- 2- Gardena da, eta itsasoetan edo ibaletan aurkitzen da.
- 3- Mutil baten izena da.
- 4- Oso langilea eta lur azpian bizi den intsektua.
- 5- Hor estalagmitak aurkituko dituzu.
- 6- Gure gorputzean daude eta oso gogorak dira.
- 7- Zuhaitzetan egiten dute txoriek.

LETRA ZOPA


W I Y O F I X O R B E L Q E A
 D T F A A N E K Z A D U B U I
 N S D O T W Q E C J F R L D D
 N A G A K D O L A T U E B A S
 I S A D O V U W M R K F L B R
 S O U B G X U B Z Q P H R E M
 E Q D N E G U A B K F T Q R N
 H U P M W O R N Z T L U W R F
 I T X H O P F G X F O H P I X
 A R H Y M A W B B N T E V A C
 X A Q O R O S O C H E G X L M
 K H G R C T J A U D A A A A P
 Q O L G G S U E G U D K Y Z Z
 G Q U D N O R D Z W K A S T U
 Q G G P G H F I G F Z Y L I V

- UDA
- ITZALA
- IHESI
- UDAZKENA
- HOSTOA
- ORBEL
- ITSASO
- OLATU
- OHARTU
- NEGUA
- UDABERRIA
- HEGAKA


SUDOKUA

3			2	7	1		
	6	2			3		
8							4
5	3	4	8		1	7	6
7		1	6		5	4	8
2	8		7		3	5	1
9							2
		8			7	9	
		7	4	9			3

7 DESBERDINTASUNAK



LABERINTOA



Gurasoei zuzendutako formakuntza saioak eskaintzen ari dira

Bi saio eskaini dira orain arte. Lehenengoa autokontzeptu eta autoestimaren ingurukoa izan da eta bigarrena adimen emozionalaren ingurukoa.

Baikara Gipuzkoako Guraso Elkartearen Federazioak familientzako hitzaldi desberdinak antolatu ditu aurtengo kurtsoan. Lehenengoa, autokontzeptu eta autoestimaren sustatzearen ingurukoa, joan den urtarrilaren 13an izan zen eta

Mendizorrotz Guraso Elkarteak nabarmendu du arrakasta izan zuela Igeldoko eskolako gurasoen artean. «20 guraso inguru bildu ziren bertan eta haur eta gaztetxoek euren buruarekiko sortzen duten irudian eragiten duten faktoreen

inguruan hausnartu zuten, besteak beste», azaldu dute. Bigarren formakuntza saioa datorren martxoaren 3an izango da eta adimen emozionalari buruz arituko dira (Orri Informatibo hau jasotzerako emana izango da formakuntza hori).

Bigarren ebaluazioa ziztu bizian dabil

Urte berriarekin erronka berriak abiatu dituzte eskolan eta bigarren ebaluazio honetan, gure izateari lotutako gaiak lantzen ari dira. Proiektuari "G-eureka!" izena jarri diote, eta zer garen, nola garen eta nondik gatozen aztertzen ari dira.

Gela bakoitzeko ikasleak zertan ari diren ere azaldu dute:

3. zikloko 14 Birusak materia eta energiaren propietateak aztertzen ari dira, eta laster esperimentu desberdinak egiten hasiko dira. 2. Zikloko Surfariak, berriz, izaki bizidunak lantzen ari dira. Horri lotuta, eta azken bi urteetan egin den bezala, eskolara Danio arrainak itzuli dira. Arrain hauen eboluzioa behatuz informazio aberatsa biltzea dute helburu.

1. zikloko Panterak beraien bizitzaren eboluzioa aztertzen ari dira, jaio zirenetik bizi izan dituzten aldaketak aztertuz, eta etorkizunari begira ere jarri dira, nolakoak izango ote diren hausnartuz. 4 eta 5 urteko Saguzarrak zentzumen desberdinak lantzen aritu



dira, jolas desberdinak ardatz harturik, eta oso ongi pasatzen ari direla esan dezakegu. Eta azkenik, 2 eta 3 urteko Suhiltzaileak emozioak lantzen ari dira "Koloretako munstroa" ipuina ardatz hartuta.

Danborrada eta Inauteriak

Azken aldira, Jai batzordea ere lanpeturik ibili dela azaldu dute: «Urtarrilaren 19an ez-San Sebastian bezpera ospatu genuen frontoian, danborrada eder batekin herria danbor hotsekin alaituz.

Eta otsailaren 12an ez-inauteriak ospatu genituen: San Ferminak izan ziren eskolan. Merendatzeko txokolatea eta txurroak izan genituen gainera. Giro polita izan genuen eta oso ongi pasa genuen!».

Aurrera jarraitzeko animoz dabilta eskolan: «Ikasturteak aurrera darrai beraz, guztion esfortzu eta ilusioarekin. Eskola-komunitate osoaren indarra beharrezkoa da honek bide onetik jarrai dezan. Eutsi goiari!».

Adi seinaleari

Izarkom Kooperatiba Igeldora iritsi da. Besteak beste, Herri Kontseiluak bat egin du bere proiektuarekin, bazkide egin da eta Itsas Aurre eraikinerako bere zerbitzuak kontratatu ditu: internet, fijoia eta mugikorra. Baina zer da Izarkom?

Herri Kontseiluak abenduan erabaki zuen Izarkom Kooperatibaren proiektuarekin bat egin eta bere zerbitzuak kontratatzea. Horrez gain, internetari lotuta herrian beste lanketa batzuk ere egiten ari direla jakinarazi du Herri Kontseiluak: Zuntz (fibra) optikorik ez duten zonaldeetan zuntza jartzen, besteak beste. Horren aurrean, Izarkomi buruz gehiago jakiteko gogoia piztu zaio Orri Informatiboari eta informazioa bildu du herritarrontzako interesgarria izango delakoan.

Zer da Izarkom?

«Euskal Herriko telekomunikazio operadore kooperatiboa da, eta helburua da Euskal Herrian azpiegitura telematikoa zein telekomunikazio zerbitzuen burujabetzarantz bidea egitea», diote. «Herritik bertatik sortu den euskal proiektu kooperatibo eta demokratiko bat

da: telefono eta interneterako sarbidea ziurtatuko digun telekomunikazio zerbitzua. Eta guztia kalitatezko baldintza teknikoak eskainiz eta tarifa onargarriak», gaineratu dute.

Helburua: azpiegitura libreak eta partekatua

Gaur egun, telekomunikazio azpiegiturak enpresa pribatuen esku daude, horrek dakartzan ondorio guztiekin: zerbitzua batzuen eskura bakarrik egotea, zerbitzua eskaini edo ez beraiek erabakitzea, tarifa altuak... Izarkomen helburua da azpiegitura horiek partekatua, irekiak, libreak eta neutralak izatea. Halaxe azaldu dute: «Telekomunikazio zerbitzu hauek Euskal Herriko txoko guztietara iritsi daitezten saiatzeko, dagoeneko zenbait herritan abian dauden telekomunikazio azpiegitura ireki, libre eta neutraletan oinarrituko da

✉ arreta@izarkom.eus f t

Euskara ▾



Zer da izarkom? ▾ Zatoz gurekin Zerbitzuak ▾ Berriak Kontaktua



Izarkom. Horrez gain, gizarte eragile nahiz herritarrekin elkarlanean sare telematiko berriak ezartzen eta garatzen lagunduko dugu». Eta gaineratu dute Izarkomek eraikitako edota bultzatutako sare telematiko guztiak SIAN lizentzia prokomunari lotuta egongo direla: «Horrela, azpiegituren bikoizketak saihesten ahaleginduko gara eta, ahal den neurrian, gizarte nahiz ingurumen eraginak txikiagotzeko baliabideen erabilera partekatua bultzatuko dugu».

Gizarte ekimenerako Kooperatiba

Izarkom gizarte ekimenerako eta irabazi asmorik gabeko kooperatiba moduan eratu dutela azaldu dute: «Izan ere, gaur egungo eredu ekonomiko kapitalista gainditzeko, jabetuta gaude ekonomia sozial eraldatzailean oinarritutako alternatiba errealak plazaratzeko beharra dugula. Alde batetik, kooperatiba gisa antolatu gara, ekimen honetan parte hartu nahi duten kide nahiz erakunde guztien artean modu demokratikoan kudeatutako proiektu parte-hartzailea izatea nahi dugulako. Eta bestetik, irabazi ekonomikoak lehenesten dituen enpresa ereduak atzean utzi eta ondare komuna eta jendartearen ongizatea helburu izango dituen beste antolakuntza ereduak bultzatzea helburu dugulako».

Zergatik Izarkom?

Hona hemen Izarkomeko bazkide egiteko ematen dituzten zortzi arrazoi:

- Telekomunikazio azpiegiturek libreak eta partekatuak izan behar dutelako.
- Herri bezala sare telematiko propioak behar ditugulako.
- Sare horiek herritarren eskuetan egon behar dutelako.
- Kalitatezko Interneterako sarbidea guztion eskubidea izan behar delako.
- Eskubidea bermatzeko, arrazoizko prezioa izan behar duelako.
- Gizartea eraldatuko duen ekonomia sozial baterako bidea jorratzeko.
- Irabazi asmorik gabeko kooperatiba garelako.
- Denon artean eraikiko dugun proiektua izan nahi dugulako.

INFORMAZIOA

Zerbitzuak: internet, mugikorra eta finkoa

Weborria: izarkom.eus

Arreta zerbitzua: 943 569 214

arreta@izarkom.eus

HERRI KONTSEILUARENTZAT OSO POSITIBOA

Denbora zen Izarkom Herri Kontseiluarekin harremanetan jarria zela bere proiektuaren berri emateko. Beraien asmoa zen Igeldon hitzaldiren bat edo beste eskaintzea, baina pandemia tarteko, hori ez da posible izan. Horren aurrean, abenduan elkartu ziren Izarkomeko eta Herri Kontseiluko kideak Igeldon egin zitekeenaren inguruan hitz egiteko. Bileraren ostean, Herri Kontseiluko kideek erabaki zuten Izarkom Kooperatibaren proiektuarekin bat egin (bazkide egin) eta bere zerbitzuak kontratatzea: internet, fijoak eta mugikorra.


Herri Kontseiluak adierazi du oso positiboa izan dela erabakia: «Izarkomen helburuekin bat egiten dugu eta orain badakigu herritarren dirua nora doan eta zertarako erabiltzen den. Eta horrez gain, zerbitzua oso ona da eta askoz ere merkeagoa. Gure tarifa erdira jaitsi da».

IGELDOKO BIZILAGUNEI KONPONBIDE BILA

Izarkomekin bildu aurretik, Herri Kontseiluak azterketa azkar bat egin zuen herrian internet sarea nola zegoen jakiteko. Gehienez fibra pasata zegoela jakin zuen, baina puntu batzuk zintzilik zeudela. Gainera, Herri Kontseiluaren sorpresarako, fibra ondo-ondotik pasatzen zaie gehienez. Hiru zonalderen berri izan du Herri Kontseiluak: Leku-Eder, Aita Orkolaga 10-12-14-16 eta Mendizorrotz ingurua.

Bizilagun horiek duten arazoari konponbidea eman nahian dabil Izarkom, azken hilabeteetan. Bizilagun horiek ere fibra izatea edo posible ez den kasuan, gutxienez internet konexio ona izatea da helburua. Azken berrien arabera, aurrerapausoak ematen ari da Izarkom.

Antzeko egoeren aurrean konponbideak bilatu izan dituztela jakin du Orri Informatiboak. Besteak beste, beraientzat lorpen haundietako bat izan da Behe Bidasoan baserri eta landa eremuan dauden bizilagunei banda zabaleko internet konexioa jartzea. Beraz, adi seinalari!



Espezieen bizi-baldintzak aldatzen baditugu, nolabait erantzun beharko dute haiek!

Txintxu, alaba
2021/02/07

Guztiok ezagutzen dugu Bengoetxeko zelaia, Bengoetxea eta Arretxe baserrien artean dagoen ordeka, lau-laua eta zabala. Demagun bi sator bizi direla bertan. Pozik daude, bizitzeko behar duten guztia dutelako, nahikoa jana, tokia... Oso gustura bizi direnez, handik pixka batera, bi izan beharrean 20 dira. Zelai ederra da, baina 20 satorrentzat tokirik ez dago. Batzuk zelaitik joan egin beharko dute, bizirik... ala hilik. Hau da, alde egiten ez duenak bere txokoa izateko borrokatu egin beharko da, kosta ala kosta.

Bengoetxeko zelaiaren 8 sator geratu dira. Ondo bizi dira, badute zer jan eta non bizi; baldintza egokietan bizi dira eta populazioa denboran zehar ez da gehiegi aldatuko: batzutan 7, bestetan 9, baina espezieak iraun egingo du denboran, zelaiaren baldintzak mantentzen diren neurrian.

Demagun, orain, eskabadora sartu dugula, putzu bat egiteko, adibidez. Eta putzuaren ondoan, zuhaitz eder bat landatu dugula, urari itzala egin diezaion. Satorrek azalera galdu dute, eta dagoeneko ez dira zortziak sartzen. Baliabideak murriztu zaizkie, eta denbora beharko dute berriz ere haien populazioa orekatzeko. Inguruak –baliabideek- baldintzatu du zenbat sator bizi daitekeen.

Eskabadorak eraikitako putzuak espezie berriak era-

karri ditu, behiak, eltxoak, txoriak... eta haiekin batera etorri diren arkakusoak, bakterioak eta birusak ere. Zelaia aldatu egin da, hezetasun handiagoa dute, itzala, eta satorren mundua goitik behera aldatu da. Kostako zaie berriz ere oreka lortzen, baina, lortu ezean, desageratu egin daitezke.

Gure planeta zelai hori baino handiagoa da, baina sator asko bizi gara. Edo, agian, bizi garenok gehiegi kontsumitzen dugu! Orekan zeuden ekosistemak apurtzen ari gara, eskabadorarekin, erregai fosilekin, hondakinekin... 7.843.913.100* pertsona bizi gara, eta bizitzeko baliabideak behar ditugu: kalkuluek diote, gure planetaz gain, beste Lur planeta erdi bat baino gehiago** beharko genukeela gu mantentzeko. Sardinak latan nola, gizakia Lur planetan. Baliabide eskasiaren aurrean, toki batzuetatik ihes egiten dugu; beste batzuetan, borroka pizten ditugu... **Gure hazkuntza-ereduak presio handia eragiten dio planetari, eta guk ordaintzen/ordainduko dugu.**

Planeta desorekatua eta jendetsua, beraz. Batetik bestera airez, lurrez ala itsasoz goazen espeziea gara; gaur hemen eta bihar han gaudena. Bada, zelaiek sator-kopurua baldintzatu duen bezala, ez al gaitu inguruak gu erregulatzen? Teknologia Naturaren legeen ertzean bizitzen ahalbidetzen digu, baliabideak txi-


klea bailira luzatzen, baina inguruak –eta eskura ditugun baliabideek- zenbat garen baldintzatzen jarraituko du; izurriteak, gudak, atentatuak, ingurumen desastreak, gaixotasunak... gure kontsumoaren ondorio dira eta gu erregulatzeko balio dute. Ez harritu, beraz, ezezagunak ziren gaixotasunak agertzen badira. **Espezieen bizi-baldintzak aldatzen baditugu, nolabait erantzun beharko dute haiek!**

Urteak dabilta zientzialariak ohartarazten*** agerraldi berri eta ezezagunak izango ditugula; dagoeneko, izan ditugu batzuk: GIB birusak sortutako HIESA, SARS-koronabirusa, H1N1-influenza, Ebola-birus-gaitza... Gaixotasun horien % 60 animalietatik datoz, eta horien % 70 animalia basatietatik eratorritako mikroorganismoek sortzen dituzte. Baina ikerketek*** diote, agerraldi horien jatorria gizakiaren baliabide sozioekonomikoei, ingurumenekoei eta ekologikoei lotuta dagoela. Pandemien oinarrian dauden kausak klima aldaketaren oinarrian edota biodibertsitatearen galararen oinarrian dauden arrazoi ber-berak dira, alegia****. Biodibertsitatea, ingurumen-baldintzak (temperatura, euri-erregimena, argiztapen-maila...), atmosferaren konposaketa kimikoa, baso-konposaketa, ura-

ren kalitatea, aberastasunaren banaketa, espezie arrotz inbaditzaileak, gain ustiaketa, hondakinak... Gure ekintzek eragiten dute horietan, eta horiek guran eragiten dute. Gure esku dago, beraz.

Igeldon ia edonon ikus dezakegu plumero itxurako landare arrotz hori; baita Crocosmiaren lore laranja politak; Fallopi japonica ugari dago, eta Ondazartekoek Indotxinako Bipaliun kewense ikusi dute, bitan, etxe ondoan! Guzti horiek espezie arrotz inbaditzaileak dira, gurean. Baina ez gaituzte gehiegi kezkatzen. Basurde asko egoteak ere ez gaitu kezkatzen, gure baratzen sartzen ez diren bitartean. Bada, SARS-CoV-2 koronabirusa baratzeraz ez, erraietaraino sartu zaigu. Eta kezkatu egin behar dugu ez soilik gutako batzuk gaixotu edo hilko garela; ez soilik poltsikoak zulatu dizkigulako; ez soilik osasun sistema kolapsa dakigukelako; kezkatu behar dugu espezie guzti horiek, baita koronabirusa ere, bizi zen tokitik atera egin delako eta gure artean bizitzeko medio ezin hobea aurkitu dutelako. Gu konkistatzea arrakasta segurua da: asko gara, elkarren ondoan bizi gara eta asko mugitzen gara, guran bizitzeak ekartzen du, munduaren jaun eta jabe izatea!

Heriotza eragile nagusiak mundu osoan



Mundu osoan urteko izaten diren 57 milioi heriotzatatik 15 milioi inguru (>%25), gaixotasun infektzioen emaitza zuzena dira. // Nature. 2004.

*2021eko otsailaren 5ean, 20:45ean. Aurten, 13.74.700 haur jaio dira, eta 5.778.800 pertsona hil (+7.986.100 H.sapiens/2021) <https://www.worldometers.info/es/>

**1, 6 Lur. <https://www.footprintnetwork.org/our-work/ecological-footprint/>

1) Binder S, Levitt AM, Sacks JJ, Hughes JM. Emerging infectious diseases: Public health issues for the 21st century. Science. 1999;284:1311–1313. doi: 10.1126/science.284.5418.1311.

2) Jones KE, Patel NG, Levy MA, Storeygard A, Balk D, Gittleman JL, Daszak P. Global trends in emerging infectious diseases. Nature. 2008 Feb 21;451(7181):990-3. doi: 10.1038/nature06536. PMID: 18288193; PMCID: PMC5960580.

3) Cunningham AA, Daszak P, Wood JLN. One Health, emerging infectious diseases and wildlife: two decades of progress? Philos Trans R Soc Lond B Biol Sci. 2017 Jul 19;372(1725):20160167. doi: 10.1098/rstb.2016.0167. PMID: 28584175; PMCID: PMC5468692.

**** https://ipbes.net/sites/default/files/2020-11/201104_IPBES_Workshop_on_Diversity_and_Pandemics_Executive_Summary_Digital_Version.pdf

Aurten ez da emakume afaririk izango

Martxoaren 8an herrian zer egin erabakitzeko, deialdia egin dute. Martxoaren 3an (asteazkena) elkartuko dira 18:30etan plazan.

Martxoaren 8a ospatze aldera azken urteetan emakume afaria egin izan dute herriko hainbat emakume. Baina aurten, beste hainbat gauza bezala, ezinezkoa izango da afaria egitea. Iazkoan juxtu-juxtu elkartu zirela azaldu dute antolatzaileek: «Egia esan zetorrenaren jakitun izan gabe elkartu ginen, baina zortez ez genuen arazorik izan».

Martxoak 8ari begira

Aurten ere Martxoaren 8an herrian zer egin erabakitzeko, deialdia zabaldu dute. Martxoaren 3an (asteazkena) elkartuko dira plazan 18:30tan.

Bestalde, Euskal Herriko Mugimendu Feministak hiriburuetan manifestazio deialdiak luzatu ditu "Dena aldatu sistema arrakalatu" lemapean. Donostiako manifestazioa 18:30tan Antiguako tuneletik aterako



da. Bertara joateko nola antolatu ere hitz egingo dute martxoaren 3ko asanbladan.

Merkatu txikia, atal berria

Herritar baten eskaera kontuan hartuz, atal berri bat martxan jartzea erabaki dugu. Hala ere, atal hau herritarrek osatu beharrekoa izango da, zuen eskaerak edo eskaintzak biltzea baitu helburu. Eta bide batez, herritarren arteko elkartrukea sustatzea. Ale honetan eskaera bakarra dugu, ea hurrengorako gehiago biltzen ditugun eta era berean bildutakoek beren helburua lortzen duten.

Merkatu txikia

*Bidali zuen eskaerak edo eskaintzak.
Gehienez 12 hitz.

LANPOSTUAK

41 urteko mutil lasaia, lan bila:
txakurrak atera, zaintzan aritu,
garbiketan, belardietan... **617605389.**

OHARRA

Iritzi-artikulu argitaratzeko ezinbestekoak dira: egilearen izen-abizenak, kontaktu-bide bat, testua euskarazkoa eta inolako asmo iraingarririk gabekoa izatea. Bestalde, Orri Informatiboak ez ditu bere gain hartzen atal honetan esaten direnak.

Inork iritzi-artikulu bat bidaltzeko interesik balu, hurrengo aleak maiatzean eta uztailean izango dira (igeldokoorria@gmail.com).



Itsas Aurre Kultur Etxea
Igeldoko plaza 4, 20008 Igeldo
Tfona. 943 313 030
Emaila: igeldokoorria@gmail.com

